



**txatxilipurdi**

# **SARE SOZIALAK: KALEAN BEZALA SAREAN!**

**Bilbon, 2010ko azaroaren 19an**



# AURKIBIDEA

**0.-Sarrera (2 min)**

**1.-Internet(5 min)**

**2.-SARE SOZIAL BIRTUALAK (5 min)**

**3.-IKERKETAREN EMAITZAK (3 min)**

**4.-GALDERAK, IRADOKIZUNAK... (5 min)**

**Guztira, 20 min**



# SARRERA

**-Galdetegia**

**-Fenomeno garrantzitsua baina oso BERRIA!**

• **Noiztik entzun duzue honi buruz hitz egiten?**

• **Noizkoa da google?**

• **Noizkoa da youtube?**

• ...





# 1. INTERNET

**Datu bat:** 2010. urteko lehen hiruhileko datuen arabera, EAEko 15 urtetik gorakoen %52,6a da internet erabiltzailea.

## **Historia:**

1969an Arpanet (AEBtako militarrek sortu): komunikazio 1 lau ordenagailuen artean!

1991n sare guztiak bakarrean: world wide web

1994an komertzializatu

1997an Google sortu

2006an 1000.000.000 erabiltzaile

2016an 2.000.000.000 erabiltzaile aurreikusi dira



# 1. INTERNET

## ADI! HEMEN DA BRETXA DIGITALA

- Afrikan %6,7ak du internet (munduko %3,9a).
- Asian %18ak du internet (munduko %42,2a).
- Iparramerikan %73ak (munduko %15,1a).
- Latinoamerika-Kariben %30ak (munduko %10,5a).
- Ekialde Hurbilean %23,7ak (munduko %2,9a).
- Ozeania-Australian %60,1ak (munduko %1,2a).
- European %50,1ak (munduko %24,1a).

**MUNDUKO BIZTANLEEN %24,1AK DU INTERNET!**

Iturria(2009): [www.exitoexportador.com](http://www.exitoexportador.com)





# 1. INTERNET

**Definizioa:** munduan telekomunikazio azpiegitura zabal baten bidez konektatuta dagoen ordenagailu-sarea.

**Aukera asko:** musika entzun, erosketak, sozializatu, bidaiak antolatu... Oinezkoen bizimoduaren isla da, off-line egiten dena on-line egin liteke!





# 1. INTERNET

## INTERNET GENERO IKUSPEGITIK:

-emakumeak teknologia berrietatik hurbil daude, halere oztopo ugari dituzte (publizitatea soilik gizonei dedikatu...)

-ikasketetan emakume +, teknikoetan ezik!

-haurtzaroan bideojoko gehienek estereotipo maskulinoak (neskentzat mezu gozoak, mutilentzat abentura eta emozioak!).

-emakumeentzat eduki gutxi, informazio eredu androzentrikoa!

-emakumeen irudia interneten: estereotipo tradizionalak + pornografia/erotismoa



# 1. INTERNET

## INTERNET HIZKUNTZAREN IKUSPEGITIK:

-2010an euskal erabiltzaileen%99,4ak gaztelania darabil, euskara %22,6ak eta ingelesa %22,1ak (Eustat 2010).

-Ziber-euskara sortu eta sustatu behar da.

-Eleaniztasuna aberastasun iturri da baina hizkuntze erabilera desorekatua nola orekatu?

-Euskarazko edukiak sortu behar dira.

-Produktu informatiko-digital euskaldunak sortu eta zabaltzearen garrantzia.

-Ingurune kultural-hurbileko behar kulturei eta sozialei erantzuteko estrategiak behar dira!

-Sorkuntza eta itzulpengintza profesionala bultzatu beharra.





# 1. INTERNET

## INTERNETEN AUKERAK:

- Zerbitzu ugari eskaintzen ditu (email, bilatzaile, txata...)
- Informazio aukera ikaragarria (adi! kritikoak izan!).
- Komunikazioa: gailu azkar eta boteretsua, komunikazio errealaren ordezkatzen duena (isolamendua?).
- Globalizazioan: aukera eta aldi berean mehatxu izan daiteke, munduko gertaerek eragina edozein lekutan.
- Bizirauteko gakoa prestigioa areagotzea.

## INTERNETEN MEHATXUAK:

- Gehiegizko kontsumoa.
- Segurtasuna (birusak, pop up leihoak, hoaxak, spamak...).
- ...



# 2.SARE SOZIAL BIRTUALAK



- Edozein pertsona 6 pausotan ezagutzeko aukera (Duncan Watts soziologoa, Frygies Karinthy idazlea).
- Batez beste 100 pertsona ezagutzen ditugu (mezuak hedatuz 100, 10.000, 1000.000...).
- Def (1): sare sozial birtualak elkarrekintza sozialerako moduak dira, talde edo erakundeen artean testuinguru konplexu batean gertatzen diren truke dinamikoak.
- Def (2): web bidezko plataformak, zerbitzu ugari eskaintzen dituztenak. Harpidetuak bere profila egiten du informazio pertsonalaz, lagunek-eta bisitatu dezaketena!
- Etengabe eraikitzen dira, oso dinamikoak dira (Iban Arantzabal).



# 2.SARE SOZIAL BIRTUALAK



**Helburu nagusia= komunikazioa**

-Haur eta nerabeen %71ak sare sozialetan parte hartzen du (Iratxe Esnaola).

**Elkarrekintza sozialerako metodoak dira, elkartruke dinamikoak, sistema irekiak (Iratxe Esnaola).**

**Izena ematean erabiltzaileak bere profila (nortasun birtuala) sortzen du:** zaletasunak, argazkiak, iritzi politiko-erlijiosoak... hortik aurrea bere profila elikatuz doa.

**Def (3):** profil ezberdinen lotura, egitura sozial bat lortzeraino.



# 2.SARE SOZIAL BIRTUALAK



## **-Sare sozial birtualen zerbitzuak:**

- Elkarbanatu, etiketatu, arg/musik/bideo igo konpartitu
- Helbideen agenda automatikoki eguneratu.
- Bakarka/beste erabiltzaileekin jokotan jolastu.
- Eguneroko pertsonal bat egin.
- Forotan ph.
- Txateatu
- Eposta bidez mezuak bidali-jaso.
- Pertsonak aurkeztu/gomendatu, gure lagunei interesatzen zaizkien pertsonak aurkeztu/gomendatu.
- Lagunen profiletan nabigatu.
- Beste batzuei erreferentzia/gomendioak eskatu.



# 2.SARE SOZIAL BIRTUALAK



## Sare sozialeko laguna $\neq$ bizitza errealeko laguna

- popularitate mota berri bat
- bereizten lagundu, kaleko lagunak-sareko lagunak
- sare sozialak ez dira ibiltzen lagun berriak egiteko baizik dauden harremanak sendotzeko.

## Hainbat datu:

- Facebook: 380 milioi profil (biztanleen %5).
- Internet erabiltzaileen %55a egunero sartzen da sare sozialetan, astean behin %80a (Sare Sozialen Behatokiaren datuak).
- Facebook: %64rentzat lehen sarea, Tuenti %33tzat.

## Emakumeak gehiengoa sareen %84an

- Facebook eta Twitterren parekotasuna.



# 2.SARE SOZIAL BIRTUALAK



## Sare sozial birtualen historia:

- 1.-Sixdegrees lehen sarea 1997an (2000. urtean itxi).
- 2.-Livejournal.com (bloga, eguneroko prib...). Atzean publizitatea. Interes enpresarialak.
- 3.-Lehen sare espezializatua (Ryce.com) 2001an, negozio mundukoa.
- 4.-Friendster 2002an (online zerbitzua, gustuen arabera antolatu...
- 5.-Myspace eta fotolog 2003an (jada hil dira kasik!).
- 6.-2004an Flickr eta Facebook.
- 7.-2005. urtean yahoo 360 eta bebo.
- 8.-2006an Tuenti eta Twitter.

## Sare sozial birtualen historia EH-n:

- 1.-2008an helduontzako den [geragaitezen.com](http://geragaitezen.com) goierrin,
- 2.-Gaztezulok [zulozale.com](http://zulozale.com) sortu 2008an baita.
- 3.-Goienak [zugaz.com](http://zugaz.com) sortu 2009an Debagoienan.
- 4.-2010an [zutagu.net](http://zutagu.net) sortu ezagutza partekatzeko.



# 2.SARE SOZIAL BIRTUALAK



## Sare sozial birtualen onurak:

- orokorrean eragin positiboa, etorkizuneko lan tresnekin trebatzeko modu ludikoan eta harremanen sarea elikatzeko, sozializatzeko!
- ondo sentiarazi (zeri kendu denbora SSBek?)
- SSBek irudia talde batean kokatzeko eta kudeatzeko beharra sortu (gaitasun sozialak landu, mundu fisikoarekin bateragarria da...).
- eskolako lagun/kideekin sinergia berriak .
- anonimoa ezagutzera eman, ezberdina berdindu eta marginatua integratu?



# 2.SARE SOZIAL BIRTUALAK



## Sare sozial birtualen kalteak:

### 1.-Pribatutasuna:

- Pribatutasuna gordetzea gero eta zailago.
- Ordenagailuak dena erregistratzen du (IP, cookiak...).
- Denok dugu sarean nortasun digitala (emaila, blogetan sarrerak, s.s.b-ak...)
- Sare sozialesko informazioa guk eman edo 3. batek jarri (guk 3.arena jartzeko bere baimena, errespetua!).

-Facebook.en pribat. Ingelesean eta letra txikiz! Horrez gain, “posible da facebook-ek zure informazioa hirugarren batentzat/batek erabiltzea”. Promozioak pertsonalizatzeko...

Facebook-ek berak ohartarazi du ezin duela pribatutasuna bermatu!





# 2.SARE SOZIAL BIRTUALAK



**Sare sozial birtualen kalteak:**

**1.-Pribatutasuna:**

**-Gomendioak:**

- 1.-Argi ibili zer jartzen duzun sarean!
- 2.-Pasahitz seguruak erabili.
- 3.-Ez eman ez etxeko helbidea ez telefonoa.
- 4.-Sare sozial  $\neq$ ak, pasahitz  $\neq$ ak!
- 5.-Profilean ez jarri izen eta 2 abizenak!
- 6.-Kontuz igotzen diren argazkiekin!

**KALEAN BEZALA SAREAN!**

**BESTE BATEN GAUZAK IGOTZEKO  
BAIMENA ESKATU!**



# 2.SARE SOZIAL BIRTUALAK



## 2.-Argazki desegokiak igotzea:

- Profilean argazki erakusgarriak jarri.
- Ez igo damutzeko moduko argazkirik.
- Beste baten argazkiak igotzeko baimena eskatu.
- Ez igo etxe, lantoki, eskola, etab... azaltzen den argazkirik (ez eman identifikatzeko argazkirik).
- Ez etiketatu argazkietan aitaxo, amatxo, izeba... moduko hitzak, ingurune sozialaren pistarik ez eskaini.

## 3.-Ziberbulling-a: argazkiak lortu, argazkiekin xantaia egitea, mehatxuak, nortasuna ordezkatzeta, intimitateari eraso egitea...

Gomendioak:

- 1.-Norbere burua eta besteena errespetatu
- 2.-Probokazioetan ez erori.
- 3.-Erasoa jasaten duena defendatu, helduei laguntza eskatu
- 4.-Sareko arduradunak abisatu.
- 5.-Erasoen aurkako frogak gorde.



# 2.SARE SOZIAL BIRTUALAK



## Sare sozial birtualen kalteak:

### 4.-Isolatzea:

- Hasteko, pentsatu: Zer da nerabeek nahi dutena? Ez debekua ez obligazioa, galdetu eta adostu!
- Gaitasun sozial eta teknologikoak garatzen dituzte?
- Ez al da kezkarriagoa SSBtan ez egotea? Obligazioa da SSBtan egotea?
- Zeri kentzen dio denbora SSBtan egoteak?
- Neurria hartu behar da: gazte guztiak ezberdinak, oreka kale/sarearen artean...
- Gakoa: ERRESPETUA ETA KONFIANTZA!

### 5.-Adikzioa/denbora neurrigabea:

- Interneten nabigatzean ez ahaztu kaleko lagunak!
- Interneteko denbora eta ordutegia NEURTU ETA ADOSTU!



# 2.SARE SOZIAL BIRTUALAK



## 6.-Asmo txarreko ezegunekin komunikazioa

Arrisku  $\neq$ ak: solaskideek gezurra esatea (pederastak etab.), kontuz zein argazki trukatu, birusak bidal diezagukete, webcam konferentziak, mundu fisikoan hitzorduak eskatzea...

Gomendioak:

- 1.-Azpimarratu behin ta berriz: soilik ezagunekin harremanak izan!
- 2.-Anonimotasuna arriskutsua da!
- 3.-Ez erabil webcama, argazkirik ez eman!
- 4.-Ez egin hitzordurik (gurasoei abisatu).

KALEAN BEZALA SAREAN!

7.-Pishing: Kontuz seguruak ez diren orriekin, ziurtatu orri nagusian gaudela! Informazio pertsonala eskatzen duten emailei ez erantzun!

KALEAN BEZALA SAREAN!



# 3.IKERKETAREN EMAITZAK



**Lagina:** 460 gaztetxori 11 galderatako galdetegi bat idatziz. Herri txikietan (Antzuola, Elgeta, Aramaio, Ugao), ertainetan (Arrasate, Bergara, Etxebarri eta Arrigorriaga) eta handietan (Bilbo, Basauri, Galdakao).

-10/12 urtetakoak 187.

-12/14 urtetakoak 167.

-16/18 urtetakoak 107.

## **Ondorioak:**

-10/12 urte artekoentzat messenger nagusi (momentuko elkarrizketak gustuko).

-Tuenti da denentzat arrakastatsuen (12tik gora).

-**Gehienbat komunikatzeko erabili:** koadrilekin kontaktua izateko, parrandak komentatzeko, azken argazkiak-iruzkinak ikusteko... Beste erabilpen batzuk: ondo pasatzeko, kuxkuxeatzeko, ligatzeko, denborapasa...



# 3. IKERKETAREN EMAITZAK



- Gehien tuenti erabili, batzuk honekin batera myspace, facebook, fotolog... Debagoienan Zugaz ere erabili!
- Euskararen erabilera kalean dutenaren antzekoa: herri txiki-ertainetan antzera, hirietan gutxiago...
- Erabilera anitzak baliatzen dituzte, zukua denari atera: txateatu, argazkiak igo/ikusi/komentatu, mezuak bidali...
- Gehienbat asteburuetan ibiltzen dira, astean zehar 20etatik aurrera (extraeskolarrak amaitzean). Asteburuan patroirik ez, denetik dago!
- Denborari dagokionean erantzun ezberdinak, nahi bestetik 5 minutura. Gehienak 15 -60 minuturen artean.
- Nerabeek arriskua ezezagunetan ikusi, gurasoek, aldiz, birusetan!
- Panda enpresaren arabera gazteen %62a egunero ibili ohi da sareetan (batz beste 18,5 min. egunero).



# 3. IKERKETAREN EMAITZAK



## HAUSNARKETAK:

-Aisialdi aktiboa igo egin da, teknologiekin lotua dena. Egunero batz besterik 13 min. eskaini hiritarrek ordenagailuei aisian.

-Iratxe Esnaola: ez ditu gure harremanak ordezkatzeko, baina denbora gutxiago eskainiko diegu kaleko harremanei. Gure harremanak osatu, **komunikatuago gaudenaren sentsazioa eman!**

-Maite Goñi: **ez utzi kaleko lagunak!** Batzuk isolatu, baina beste batzuk sozializatzen dira harreman birtualak hezuramaitzean.

-J.L. Orihuela: sareak aukera asko eman ematen ditu informazioa/lana/bikotea aurkitzeko.

-Bestelako hausnarketak: telenobelak bezala jarraitu SSBak, enpatia gainbeheran joan liteke...



# 3. IKERKETAREN EMAITZAK



## ARRISKUAK BAI, BAINA...

-Kalean ez dago arriskurik? Umeekin kalera joatea ez da arriskutsua? Nerabeak kalen solte egotea ez da arriskutsua? Kaleko arriskuak kontrolatuta ditugu, sarekoak ez.

-Debekurik ez: bizitza soziala egiten ari dira, ez ordezkatu patioa, osatu egiten du!

-Obligaziorik ez: ez bortxatu haur-nerabeaaren borondatea.

-Konfiantzazko komunikazioa behar da, jarrera intrusiborik gabe hitz egin. Konfiantza ezinbestekoa da, kalean ere ez dakigu zertan ari diren nerabeak uneoro!

-Lehenengo pausoa norbera informatzea. Guk azaldu behar diegu nola erabili, kalean nola jokatu erakusten diegun moduan.





# 3.IKERKETAREN EMAITZAK



## ONDORIOAK

- Tresna hutsak dira, erabilera on eta txarra dutenak.
- Ez debeku ez obligazio!
- Ezagutu egin behar ditugu: ibili, ikasi, irakatsi.



# 4.GALDERAK



**BA AL DAGO GALDERA EDO IRADOKIZUNIK?**

**Edozertarako idatzi: [idazkaritza@txatxilipurdi.com](mailto:idazkaritza@txatxilipurdi.com)  
helbidera**





# ESKERRIK ASKO ETORTZEAGATIK!

